



LARRABETZUKO
UDALA
AYUNTAMIENTO DE
LARRABETZU

LARRABETZUKO
UDALA

AURREKONTUAK
2018 MEMORIA

Alkatea

HERRITARREN PARTE HARTZEA.

Aurrekontuak egitean herritarren parte-hartzea sustatzeko ekimenen artean, aurten ekimen barrizalea ipini dogu martxan. Kontuan hartuta gastu gehienak egiturazkoak eta finkoak dirala, inkesta bat ipini dogu martxan, eta etxe guztietako postontzietan sartu dogu. Inkestan auzotarrei aurrekontuei egin gura jakezan ekarpen orokorren ganean galdetu deutsegu, eta lehenengoz galdetu dogu zuzenean non gastau 50.000 euroko partidea.

Jasotako ekarpenek balio izan deuskue 2018rako lehentasunak marketako.

Bestalde, eta herritarren parte-hartzea hobetzen edo areagotzen beharrea segiduteko, guztiok herri honen etorkizuna eregiteko partaide izatea sustatzeko partidak areagotu doguz.

2018. URTEKO AURREKONTUA PRESTETAKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

- **INBERTSIO PLANA AURRERA ERAMATEKO DIRU KOPURUA HAUNDITU**
- **GIZARTEAREN ETA EKONOMIAREN GARAPENA**
- **INGURUMEN APUSTUA**
- **TOKIKO AZPIEGITUREN HOBKUNTZEA**
- **TOKIKO ELKARTEENTZAKO LAGUNTZEA.**
- **LARRABETZU 2025. PROZESU PARTEHARTZAILE MARTXAN JARRI**

%10ko hobekuntzea aprobetxauko dogu diru-sarreretan, udal-ordenantzetan eginiko aldaketei esker, eta diputazinoaren kontuen hobekuntzea, udalkutxaren diru-sarrera handitzea ekarriko dauana, 2018rako aurrekontuak martxan jarteko:

GIZARTEAREN ETA EKONOMIAREN GARAPENA.

- Datozen urteotarako ontzat emondako inbersino-planagaz aurrera segidutea eta, horretarako, aurten partida handiagoa eskintzea inbersinoei, aurreikusi doguzan helburuak bete ahal izateko.
- 2.000 euroko partidea (orain arte ez egoan holakorik), tokiko merkataritza sustatzeko. **MERKATARITZAKAZ BATERA, URTARRILAN, ZEHAZTUKO DOGU ZER EGIN.**
- Aurrekontu-partidak tokiko azpiegiturak hobetzeko erabiltea: Ugerlekuak, Eleixaldeko txokoa, haurreskola...
- Memoria historikoa berreskuratzeko apustua egitea eta, horretarako, aurrekontuan 25.000 euro jarriko doguz.
- 2.000 euroko partidea, nekazariei eskinitako ikastaroak egiteko: ikastaro fitosanitarioak...
- Gurpidegaz batera, **NEKAZARITZAN**, 2018 urterako plangintza egiten gabiz. 10.000 euro jarriko doguz aurrekontuetan honetarako.

PROZESU PARTEHARTZAILEA MARTXAN JARRI.

Herrian etorkizunari buruzko eztabaida zabaltzeko, 2017an prozesu partehartzaile bat martxan jarri dogu. 2018. urtea aurre pauso bat emango dogu. 7.000 euroko partida bat zabaldu dogu, helburu honegaz: teknikari baten laguntzagaz, eztabiada zehaztu eta herriaren parte hartzea handitzeko plangintza bat egin, Larrabetzuko herriarentzat plan estrategiko bat denon artean egiteko.

INGURUMEN APUSTUA.

- 2018an, urrats garrantzitsua emon behar dogu, Larrabetzuko birziklapenaren ehunekoia handitzeko. Horretarako, organikoen bilketea areagotzeko (emaitzak bikainak dabilz izaten) eta hondarren bilketako NODOAK areagotzeko lanean sakonduko dogu, birziklapena areagotzeko. Horretara bideratutako aurrekontuan 40.000 euro partida egongo da.

TOKIKO AZPIEGITUREN HOBKUNTZEA.

Aurtengo urterako aparteko partidak.

- 40.000 euro, landa-bideak hobetzeko. 24.000 gastau dira 2017an.
- Auzoetako seinaleak hobetzeko, 7.000 euro.
- Ugerlekuko instalazinoak hobetzeko: 40.000 euro.
- Txokokoan hobenkuntzak egiteko: 15.000 euro.

TOKIKO ELKARTEENTZAKO LAGUNTZEA.

Tokiko merkataritzeari eskinitako partida barriaz ganera, % 6 handituko dogu tokiko kultura- eta kirol-taldeentzako diru-laguntzinoen kopurua. 2018 urtean, 2.500 euro gehiago diru laguntzetan.

NABARMENTZEKOAK DIRAN BESTE PUNTU BATZUK.


- Garbiketa-zerbitzuak udalekotzea, eta gastuak aurrezte eta zerbitzua hobetzea.
- Gastu arruntak egokitzen segidutea, eraginkorragoak izateko: Telekomunikazioetako gastuak, mantentze-lan batzuetakoak, sastrakak kentzekoak...
- % 37 areagotu dogu udalerrian arazo ekonomikoak daukiezan familientzako laguntzinoetarako diru-kopurua. Aurten 5.500 euroko partida honetarako.
- 2.000 euro gehiago aisiarako eta aisialdirako jardueretarako diru-kopurua. Guztira 29.000 euro uda eta aste santuko ekitaldiak antolatzeko.

AURREKONTUEN XEHETASUNA.

DIRU SARRERAK.

Sarreran esan dogun lez, zerga-ordenantzeta eta prezio publikoen ordenantzeta azken bi urteotan eginiko eguneratzeek hobetu egin dabe udalak kudeatutako baliabideen parte-hartzea guztizko diru-sarreretan. Ganera, aldundiak diru-sarreren inguruan eginiko aurreikuspena aurreko urteetakoa baino hobea denez, aurten % 10ko gorakada egongo da guztira, 2017ko diru-sarreren aldean.

Udalkutxa (aldundia)	1.453.600,00 €
zergak	585.000,00 €
tasak	376.151,00 €
dirun laguntzak (EJ-ALDUNDIA)	213.500,00 €
beste batzuk+	7.000,00 €
GUZTIRA	2.635.251,00 €



LANGILEEN GASTUAK.

Barrero be zerbitzuak udalekotzeak %8 (e)ko gorakada ekarriko deusku langileen gastuan 2018rako langileen guztizko gastuan.

2018RAKO GASTUAK, GUZTIRA... **498.500,00 €**

2. GASTUAK

Aurten, gastu orokorrak %10 areagotuko doguz. 2017an, ordea, gastuek behera egin eben, 2016aren aldean. Gorakada egongo bada be, gastu finkoei eutsiko jake eta batzuk murriztu egingo dira, baina partida batzuk aparteko gastu batzuetara bideratuko dira eta horrek ez dau gorakadarik ekarriko etorkizunean egiturazko gastuan.

Lehentasanak erabagiteko, auzokideen eritxiak ere hartu dogu kontuan.

Garrantzitsua da gastu batzuen kudeaketa berreskuratzeko erabagia eta, horretarako, haurreskolan garbiketa-jarduera zuzenean egitea, udal-beharginen bidez. Enplegu-eskintza publikoaren bidez sartu zan eta lanaldi erdian behar egiten eban personak lanaldi osoan egingo dau behar, eta haurreskolea garbitzeko beharrak egingo dauz. Horrek kudeaketa hobea eta gastuen murrizketa orokorra ekarriko dauz.

2018KO INBERSINOAK.

Inbersinoen plan estrategikoagaz segiduten dogu. 2017an, inbersinoak egin genduzan eskolan eta haurreskolan, Errebale Jauregian, lokala erromesen aterpetxe izateko baldintzetara egokitzeko, eta, eraginkortasun energetikoa hobetzeko, futbol-zelaiko argiak aldatu doguz, eta horrek % 70eko aurrezpen energetikoa ekarriko deusku. Egin diran inbersinoak, guztira, 260.000 euro izan dira.

2017-19 PLAN ESTRATEGIKOAn oinarriak honek ziran:

- **Gaur egungo azpiegituren mantenimendua eta hobekuntza**
- **Mugikortasun Plana**
- **Energia jasangarritasunaren aldeko apostua**
- **Proiektu estrategikoak. Garapen sozial eta ekonomikorako inbertsioak:**

2018rako, aurreikusitako inbersinoez ganera, beste bat be gehitzen dogu, jasotako eritxietan oinarrituta. Ugerlekuetako aldagelak barritzea. 2018rako inbersinoak:

- Autokarabanen aparkalekua: 180.000 euro.
- Plazako aterpea: 110.000 euro.
- Eskolako aterpea: 200.000 euro.
- Ibilgailuetarako aparkalekua pilotalekuaren atzean+mugikortasun plana: 100.000 euro.
- LED argiak frontoian jartzea 25.000 euro
- Ugerlekuetako aldagelak hobetzea: 40.000 euro.

Aurtengo aurrekontuak + erremanenteagaz inbertsioak ordainduko dira.